



Kirurgia estetikoa

SEGURTASUNEN DEKALOGOA

- 1. Lehenengo eta behin galdera hau egiozu zeure buruari: benetan behar al dut ebakuntza hau? Pertsona bakoitzak pozik egon beharko luke bere irudiarekin. Garrantzitsua da norberaren burua zaintzea, ariketak egitea, dieta orekatua eramatea, baina, halabeharrezkoa al da modeloen gorputza edukitzea? Gazte zarenean ez zaizu komeni ebakuntzarik irudia aldatzeko soilik egitea: gorputza garatzen ari da.**
- 2. Egin ezazu ebakuntza kirurgikoa ospitale edo klinika mediko batean (ebakuntza gela, erizain, anestesista tituludun, ebakuntza ondoko areto eta abarrekin), berme profesional guztiak eskainiko dizkizuten lekuan alegia. Egiaztatu ea aukeratu duzun zentroa osasun zentro gisa erregistratuta dagoen. Honek esan nahi du irekitzeko lizentzia ematerakoan osasun alorreko agintariek egiten dituzten kontrolak gaindituak dituela.**
- 3. Ez ezazu zirujau bat edo beste aukera, tratamenduaren prezioari soilik begiratuta. Prezio merkeak materialen edo zerbitzuen kalitatearen kaltean izan daitezke. Beraz, ondo informatu behar zara zurekin erabiliko dituzten materialei buruz, batez ere protesiei dagokienez.**
- 4. Aukera ezazu Kirurgia Plastiko eta Konpontzailean titulaturako zirujaua. Egiaztatu ea espezialitateko titulua gure herrian legez finkatutako prozedura jarraituz eskuratu duela. Edozein mediku espezialistari buruzko informazio gehiago edukitzeko zure herrialdeko Medikuen Elkargora deitu dezakezu.**
- 5. Aukera ezazu eskarmentuzko eta ondo prestatutako zirujaua. Erabakia hartu baino lehen kontsultatu zirujau ezberdinekin. Galdetu aukeratu duzun zirujauak operatu dituen beste pertsonari. Garrantzitsua da ebakuntzaren aurretik zirujau plastiko ondo ezagutzea, zure kasurako konponbide egokiena topa dezan. Hitz egin ezazu berarekin eta galde egiozu ebakuntzaren gainean daukazun zalantza, kezka edo ezagutzen ez dituzun alde guztiez: anestesia, ebakuntzaren ondorengo aldia, errekupezioa, orbainak eta abar.**
- 6. Eska ezazu aurretik elkarrizketa bat anestesistarekin, ebakuntza gelako funtsezko elementua baita. Talde medikoaren gainekoak alde aurretik ezagutu nahi dituzula eska dezakezu eta euren lanbidezko titulazioa egiaztatu.**
- 7. Exijitu idatzizko informazioa ebakuntza zertan izango den, erabiliko diren metodoen, kontraindikazioen eta abarren gainean. Komeni zaizu ebakuntza prozesu osoaren arriskuak ezagutzea: gerta daitezkeen infekzioak, orbaintze okerrak, hemorragiak, konplikazioak eta abar. Exijitu publikitatearen benetakotasuna eskaintzen dizkizuten zerbitzu guztietan. Gogoratu publikitatea kontratuaren barruan doala.**
- 8. Ebakuntza baino lehenago, ebakuntzaren aurretiko azterketak egin behar dizkizute. Normalean, ebakuntzaren aurretik, medikuak berak eskatzen ditu analisi batzuk: odola, klinikoak, kardiologiakoak eta abar, egingo duen ebakuntzaren arabera. Ziurtatu zure kasuan ere hala egingo duena.**
- 9. Gorde itzazu tratamenduaren gainean ematen dizkizuten dokumentu guztiak, hutsalak direla iruditu arren. Erreklamazioen bat egin behar baduzu agirizko frogak aurkeztu behar izango dituzu (publizitatea, fakturak, aurrekontuak...); eta, hala bada, egiaztatu beharko duzu kalte eta gaitza egon badagoena eta, zer lotura daukazu ebakuntza egin zizun medikuarekin edo ospitalearekin.**
- 10. Pazientearen historia funtsezko da agiria klinikoa medikuaren edo ospitalearen arduragabekeriagatik egindako erreklamazio guztietan. Oso argi eduki behar duzu, pazientearen izanik, zure historia kliniko osoaren kopia bat edukitzeko eskubidea daukazuna.**

AURKIBIDEA

| | | | |
|-------------------------------|-------|----------------------------|--------|
| 1. HASTEKO | >>> 1 | 4. DENBORA-PASAK | >>> 8 |
| 2. KIRURGIA ESTETIKOARI BURUZ | | 5. DENBORA-PASEN SOLUZIOAK | >>> 10 |
| MUSIKATZEN | >>> 1 | 6. UMORE GRAFIKOA | >>> 11 |
| 3. JARDUERAK | >>> 2 | ERANSKINA | >>> 12 |

Argitaratzailea: Kontsumitzailearen Hezkuntza Sarea
<http://www.infoconsumo.es/eecred>

Egileak:

Nieves Álvarez Martín
 Laguntzaileak
 Leticia Ortíz Bedia, M^a del Pilar González Echezarreta,
 Ana Vallejo Echezarreta, Amaia Saenz, Ainhoa Sanz,
 Nuria Vitoria

Diseinua eta maketazioa:

M^a Isabel Gómez Bedia
 M^a Luisa Lavín Solana

Ale-kopurua:

Autonomia Erkidego bakoitzerako koordinazioa:

Gonzalo Sánchez Moreno (Kantabria)
 Rafael González del Busto (Asturias)
 M^a José López Ródenas (Valentziako Erkidegoa)
 Esther Álvarez Fernández (Galizia)
 Alejandro Salcedo Aznal (Gaztela-Mantxa)
 Arrate Martínez de Guereñu (Euskal Herria)
 José M^a Iglesias Sánchez (Extremadura)
 Susana Gil (Madril)
 Francisca Pérez Jiménez (Aragoi)
 Carmen Herrero Álvarez (Gaztela eta Leon)
 Susana Conde Escorihuela (Errioxa)
 Luis Domínguez Rodríguez (Kanariak)
 Julià Guimerá Gargallo (Katalunia)

Lege Gordailua:

Inprimaketa: J. Martínez S.L.

1. HASTEKO

Kirurgia plastiko edo estetikoren bat egin duen norbait ezagutzen al duzu? Arrazoiak esan dizkizu?, horrelako ebakuntzaren bat egingo zenuke? Zergatik?, kirurgia plastiko eta kirurgia estetikoaren artean dagoen aldea ezagutzen al duzu?, ebakuntza hauek berekin izan ditzaketen arriskuak ezagutzen al dituzu?

Galdera asko? Baliteke, baina... erantzun guztiak ezagutzen al dituzu? Batzuek errazak direla ematen dute, baina... horrela al dira? Kasu hauetan eta antzeko beste batzuetan, erantzun zuzena aurkitzen ez baldin baduzu, ondorioa hasiera batean iruditu ahal zaizuna baino askoz larriagoa izango den arazoa izan daiteke. Hori dela-eta, informazioa baldin baduzu, hori saihestu ahal izango duzu. Gainera, noizbait pentsatu ahal duzu kirurgia estetikoaren gaia ere izan zitekeela? Ez, ezta? Bada, ikus dezakezunez, bada. Horregatik, interesgarria izan daiteke arreta jartzea eta koaderno honetako jarduera guztiak eta ikasgela proposatzen dizkizutenak ere egitea. Amaieran, hauei eta bestelako galdera batzuei, segurtasun osoz, erantzun ahal izango diezu, zenbait gauza bitxi ezagutuko dituzu, ero-eroan zerbait egin baino lehen aurreikusi ahal izango duzu eta informazio gehiago duen pertsona izango zara.

2. KIRURGIA ESTETIKOARI BURUZ MUSIKATZEN

Koaderno honetako azken orrialdea begiratu ahal duzu? Ez baldin baduzu begiratu, egin orain. «Kirurgia estetikoaren dekalogo» irakurri ahal duzu? Berriz ere irakurri zure lagunekin, hausnarketa egin bakarrik edo taldean. Dagoeneko argi al duzu? Bada, orain pentsatu behar duzu konpositorea zarela eta kirurgia estetikoari buruz hitz egiten duen abesti baten musika eta letra egiten agindu dizutela. Irakurri duzunaren antzeko letra asmatu beharko duzu zure hitz egiteko moduari, zure estiloari egokitzen diozula; aukeratu erritmo bat (rap, rock, pop...) gehien gustatzen zaizuna. Ondoren, bakarrik edo zure lagunekin batera, maketa bat grabatu beharko duzu, ausartuko al zara? Gure web orrian begiratzen baldin baduzu horrekin egin dezakezuna jakin ahal izango duzu.

www.infoconsumo.es/dianaseguridad



3. JARDUERAK

Hemen jardueren zenbait fitxa daukazu, eskolan egin ahal izateko zure irakaslearen laguntzarekin. Horrela, frogatu ahal izango duzu noraino dakizun kirurgia estetikoari buruz. Seguru informazio batzuek zur eta lur utziko zaituztela. Azkenean, gauza erabilgarri asko ikasiko dituzu eta gai izango zara jopuntuan asmatzeko zure segurtasunagatik.

I. FITXA: IKERTZEKO LANA

Prentsan azkeneko urteotan kirurgia estetikoari buruz jaso dituzten gertaerei buruzko ikerketa proposatu nahi dizuegu. Bestelako artikulua eta informazioak ere bilatu ahal dituzu (badakizu: internet bidez, hemerroteketan,... etab.). Bakarrik edo taldean lan egin dezakezu. Hemen dituzue adibide batzuk:

El País. 02/01/29

Madrilek mesoterapia bat egin zioten pazientea hil zen zentro estetikoak zigitatu du

Madrileko Osasun Kontseilaritzak atzo Icema Estetika Zentroa zigitatu zuen, bertan iragan ostiralean Débora Catalán hil zen, jarduera hori egiteko baimena ez zuelako. Pzientea mesoterapia bat egin ziezaioten joan zen, hori injekzio intradermikoak erabiltzen dituen zelulitisaren aurkako tratamendua delarik. Kirurgia Estetikoaren Espainiako Elkarteak sektorean dagoen «intrusismoa» salatu zuen. Bere lehendakaria den Ramón Vila jaunaren arabera, Espainian 500 zirujau plastiko daude, zirujauarena, berriz, milaka pertsonak egiten dute, beste adar batzuetako «sendagileak izan ohi direnak».

1

El País. 02/01/31

Osasunak kirurgia estetikoa debekatu du Kanarietako bi kliniketan

Kanarietako Osasun Zerbitzuak (KOZ) bi kliniketan (Tenerifeko Parque, eta Kanaria Handiko Cajal) kirurgia estetikoko ebakuntzak bertan behera uzteko agindu ebakuntza horiek baimenik gabe egiteagatik. Halaber, establezimendu hauetan lan egiten zuten medikuntzako lau lizentziatari mota horretako ebakuntzak egitea debekatu die.

.....
Kanarietako Osasun Zerbitzuak bi klinika hauei zigorra jartzea aztertzen ari da. Isuna 15.025 eurokoa izan liteke. Artxipelagoan beste kontsulta ere itxi dute, bertan lipoeskultura egiten zuten medikuntza orokorra bakarrik egiteko baimena bazuten ere

.....
Bestaldetik, Malagan, Andaluziako Batzarreko Osasun Ordezkaritzak 15 klinikari espedientea ireki die hiru hilabetetan. Horietatik, 6k jarduerarako baimenik ez zuten eta 9 medikuntza orokorra egiteko bakarrik egiaztatuta egon arren kirurgia estetikoa egiten zutelako.

2

La Vanguardia. 02/02/04

Espainia EBko lehen herrialdea da edertasun-ebakuntzei dagokienez

Bere irudiak kezkatzen ditu espainiarrak. Eta asko, zenbakiak adierazten dutenaren arabera. Espainia kirurgia estetikoko ebakuntza gehien egiten dituzten EBko herrialdea da eta munduko lehendabizikoetako bat, Kirurgia Estetikoaren Espainiako Elkarteak adierazi duen bezala. Lehendabiziko postuan, zalantzarik gabe, Brasil dago eta ondoren Venezuela, eta «ziur aski hirugarren herrialdea Espainia izango da», Erakunde horretatik adierazi dutenez.

.....
Mota horretako ebakuntzen ia % 2ak ez du amaieran espero duten emaitza ematen (orbainak, desitxuratutako aurpegiak...) edo pazienteak hiltzera ere iristen da, Pzientea Defendatzeko Elkarteak adierazi duen bezala.

3



El País. 02/02/07

Katalunia eta Madrilek estetika-zentro batzuetan erabilera topikoko antizelulitikoak legez kanpo injektatzen dituztela ohartarazi dute

Kataluniako Generalitateak eta Madrilgo Komunitateak atzo estetika-zentro batzuek bide topikotik bakarrik (zuzenean azalaren gainean) ezarri ahal dituzten produktu antizelulitikoak larruazalpetik injektatzen ari direla ohartarazi dute. Alarma piztu zen Kataluniako Osasun Sailaren teknikoek aurkitu zutenean zentro batzuetan bere pazienteei Mesoestetic enpresak banatu duen gel antizelulitiko bat, aplikazio topikoko merkaturatu dutena, injektatzen ari zitzaizkiela.

4

El Norte de Castilla. 02/03/18

Gazteagotzen duen pozoia

Gaztetasunaren elixirrak, gure mendean, kirurgiaren forma du, gaztaroa, edo, gutxienez, itxura, aldi baterako bada ere, itzultzen duten injekzioena.

Anonimatuan babestutako ospetsuek eta horretatik ateratzeko gogoia duten anonimoez estetikako besaulki eta kabinetan denboraren markak ezabatuko dizkien iraganerako bidaia bilatzen dute.

.....
Horren inguruan legerik ez egoteak administrazioa ordena jartzera bultzatu du. Azkeneko erabakia A motako toxina, botox bezala gehiago ezagutzen dutena, baimendu gabe xede estetiko eta kosmetikoetarako erabiltzen dutela ohartaraztea izan da

.....
Botoxa botulinum izeneko toxina hilgarriaren deribatua da, hori ezagutzen duten pozoirik indartsuena delarik. Kopuru txiki bat hilgarria izan daiteke gizakiarentzat. Dena den, araztuta eta dosi infinitesimaletan, pozoia medikuntzarako erabilgarria izan zitekeela aurkitu zuten.

5

El País. 02/03/26

Emakume bat koman gelditu da ebakuntza estetiko bat egin ondoren

Ana Mileno Tororen sendiak, 29 urteko Kolonbiako emakumea denarenak, Madrilgo Bruselas izeneko zentro klinikoaren aurka legezko akzioak egitea erabaki du, bertan iragan larunbatean dermolipektomia bat egin zioten (sabelaldean soberan dagoen gantza eta ehunaren erresektzioa). Emakumeak bihotz eta arnas gelditzea izan zuen eta koman sartu zen ebakuntza egin ondoren. Madrilgo Komunitateko Osasun Kontseilaritzak atzo zentroa legezkoa dela jakinarazi zuen.

6

2. FITXA: KIRURGIA ESTETIKOARI BURUZKO MITO ETA AKATSAK

Jarraian, kirurgia estetikoari buruzko hainbat topiko aurkeztu dizugu (6 guztira), horrela, horietatik zein diren egiazkoak eta zein gezurrezkoak adierazi beharko duzue. Bakarrik edo taldean lan egin dezakezue, talde bakoitzak topikoei buruz eztabaidatu beharko du eta bere ondorioak aterako ditu. Zer da egiazkoa eta zer gezurrezkoa esatea ez da nahikoa, arrazoitu beharko duzue. Hori egin ondoren, datuak denon aurrean adieraziko dituzue.

| TOPIKOAK | E= Egia G= Gezurra | E/G |
|---|--------------------|-----|
| 1. Sudurreko kirurgia estetikoak arnas egiteko arazoak eragin ditzake. | | |
| 2. Silikona-protesiak malguak eta anatomikoak dira, eta operazio ondoko 90 egunak iragan ondoren, daudela ere ez duzu nabaritu. | | |
| 3. Protesiak 10 urtean behin aldatu behar dituzte. | | |
| 4. Helduek ezin dute kirurgia otoplastikoa egin. | | |
| 5. Bular-inplantea duten pertsonak ezin dira hegazkinez joan, protesiak eztanda egiteko arriskua dagoelako. | | |
| 6. Kirurgia estetikoak geroz eta onarpen txikiagoa duen alorra da eta, hortaz, desagertuko da. | | |



3. FITXA: KIRURGIA ESTETIKOA AZTERTUKO DUGU

Jarduera honen bidez eskuratu duzuen informazio guztia aztertuko dugu. Jarraian topatuko duzuen taularen laguntzaz, informazio hori taldekatu eta sailkatu ahal izango duzue. Helburua kirurgia estetikoari buruzko ezagupenak argi eta garbi izan dezazuen da. Osatu behar duzuen koadroa honakoa da:

| <i>Ebakuntza</i> | <i>Zertarako</i> | <i>Zertan datza</i> | <i>Salneurria</i> | <i>Oharrak</i> |
|------------------------------|------------------|---------------------|-------------------|----------------|
| Errinoplastia | | | | |
| Mentoplastia | | | | |
| Masailalbo-hezurra handitzea | | | | |
| Otoplastia | | | | |
| Liftinga | | | | |
| Blefaroplastia | | | | |
| Botoxa | | | | |
| Peeling kimikoa | | | | |
| Handitzeko mamoplastia | | | | |
| Murrizteko mamoplastia | | | | |
| Bularrak berreraikitzea | | | | |
| Abdominoplastia | | | | |
| Lipoaspirazioa | | | | |
| Mesoterapia | | | | |
| Betegarriko inplanteak | | | | |
| Gluteoak handitzea | | | | |
| Ginekomastia | | | | |
| Zangosagarrak hobetzea | | | | |



4. FITXA: KIRURGIAKO EBAKUNTZA BAT EGITEA PENTSATZEN ARI BANAIZ ZER AZTERTU BEHAR DUT?

Jarduera honen bidez, estetikako ebakuntza bat egiteak duen garrantziaz hausnarketa egin dezazuen nahi dugu. Test erraz bat aurkeztu dizuegu, horri egia erantzun beharko diozuela eta emandako erantzunak, gainera, argudiatu beharko dituzue. Galdegegria egin ondoren, ateratako emaitzak ikaskide guztien aurrean azalduko dituzue.

GALDEGEGRIA

- 1. Nire fisikoa gustatzen zait, ala ez? Zergatik?**
- 2. Estetikako ebakuntza eginda lortuko dudana benetan dakit edo norbaiten antza izatea baino ez dut bilatzen?**
- 3. Pozik ez nagoen nire itxura fisikoko alderdi horiek aldatzen ditudala ebakuntza egiten badut nire arazoak konponduko ditudala uste al dut?**
- 4. Ebakuntzak izan litzakeen bigarren mailako ondorioez hausnarketa egin al dut?**
- 5. Estetikako ebakuntza bat egitekotan izango ditudan arriskuak benetan ezagutzen al ditut?**
- 6. Operazio-mota hauetan operazio ondokoak zenbat irauten duen eta zein baldintzatan pasatu behar duten al dakit?**
- 7. Operatutakoak zenbat iraun behar duen edo protesiek (kasu hori bada) iraungitze-data duten ba al dakit? Esaterako, liposukzioen eraginek oso epe mugatua dute.**
- 8. Operazio hauek eskaintzen dituzten bermeak zein diren ba al dakit?**



5. FITXA: EZTABAIDA

Zuen ideiak, ongi ordenatuta azaldu beharko dituzu, eta beste taldeak ematen dituenak ere arretaz jarraitu beharko dituzue argudio sendoen bidez aurka egin ahal izateko. Besteei defendatzen duzuna sinestarazi beharko diezue, horrekin ados ez bazaude ere (pentsatzen duzunaren aurkako jarrera aldeztea egokitu ahal zaizu). Hemen dituzu argudio batzuk:

| ALDE | AURKA |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">• <i>Itxura fisikoa hobetzea.</i>• <i>Norberaren estimua handitzea.</i>• <i>Gizartean onarpen handiagoa izatea.</i>• <i>Konplexuak kentzea.</i>• <i>Ebakuntza egiteko aukera edonoren esku dago.</i>• <i>Nire itxura fisikoa hobetzeak lan-arloan ateak zabal diezazkidake.</i> | <ul style="list-style-type: none">• <i>Nire itxura fisikoa aldatzeko bestelako aukerak ere badaude.</i>• <i>Estetikako operazioek beste ebakuntza kirurgiko batzuek dituzten arrisku berberak ere badituzte. Orbaindu edo sendatzerakoan arazoak gerta daitezke.</i>• <i>Teknika batzuk organismorako oso agresiboak dira.</i>• <i>Norberaren estimu handia izateko ez da beharrezkoa itxura fisiko bikaina izatea, gizarteak eta guk ere geure burua den bezalako onartu behar dugu. Azken emaitza espero ez duzuna izateko arriskua dago.</i> |

6. FITXA: ALDEA AURKITU AL DUZU?

Jarraian, estetikako sei ebakuntza egin aurreko eta ondoko hainbat irudi erakutsiko dizkizugu. Ordenatu eta bakoitzaren azpian bere izena eta definizioa jarri.

- Honakoak dira bere **izenak**:

BLEFAROPLASTIA

LIFTINGA

LIPOSUKZIOA

BULARRAK HANDITZEA

RINOPLASTIA

OTOPLASTIA

- Honakoak dira horien **definizioak**:

1. Zenbait gunetan metatuta dagoen gehiegizko gantza xurgatzea.
2. Haizemaile edo oso irtenak dauden belarriak zuzentzea.
3. Aurpegia gazteagotzea.
4. Betazalak zuzentzeko kirurgia.
5. Titiburuaren areolatik gatz-disoluzio edo silikona-gelezko bular-protesiak sartzea.
6. Sudurra zuzentzeko kirurgia ez estetikoa.





A



B



C




D



E



F



1



2




3



4



5



6



7. FITXA: LEGEA ORDENATZEN

Osasun psikologiko edo fisikoa dela-eta kirurgia plastikoa egiten duten pertsonak, beste edozein pazientek bezala, Osasunari buruzko Lege Orokorraren 10. artikuluan jasota dauden hainbat eskubide dituzte.

Tokiz aldatu zaizkigu pixka bat. Eskubide bakoitza berriz osatu eta ondoren idatz itzazu:

- Eskubidea bere pertsona, eta bere intimitatea. errespetatzeko giza duintasuna
- informazioa zerbitzuei Eskubidea lortzeko eskuragarri dituen osasun buruzko.
- informazioa guztia Eskubidea isilpekoa izateko lotutako bere prozesuarekin.
- Eskubidea izateko erabili dituzten irakaskuntzako proiektuetan eta ikertzeko. jakinaren gainean prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak
- Eskubidea berarentzat ulergarriak diren hitzetan, bere senideek informazio osoa eta jarraitua. edo hurbilekoek, eskuratzeko
- arduradun medikoa bere kasuaren. Eskubidea libreki aukeratzeko aukeren artean aurkezten dizkioten
- Eskubidea zehatzerako baimen informatu.

4. DENBORA-PASAK

HIZAK LOTU ITZAZU

Jarraian, bi zutabe dituzu, horietako batean aztertu ditugun estetikako ebakuntza edo operazioak ageri dira, eta bestean, berriz, operazio horiek egiten dituzten gorputz-atalak dituzu. Egin behar duzuna oso erraza da, bikoteak zuzen egin behar dituzu, horretarako geziak erabiliko dituzula, adibide moduan, lehendabizikoa dagoeneko eginda dago.

| | | |
|-----------------|---|--------------------------------|
| Otoplastia | → | Sudurra |
| Blefaroplastia | | Betazalak |
| Perfiloplastia | | Aurpegia |
| Errinoplastia | | Belarriak |
| Mamoplastia | | Masailalbo-hezurak eta kokotsa |
| Liposukzioa | | Bularra |
| Abdominoplastia | | Sabelaldea |
| Erritidektomia | | Izterrak, gluteoak eta aldakak |

HITZ GURUTZATUAK


Ezker-eskuin:

1.- Lesioek eragindako itxura fisikoa eta funtzioa hobetzen edo lehengorutzen saiatzen den kirurgia plastiko mota. Bi hitz dira.

Goitik behera:

- 1.- Gaiari buruzko informazioa eskuratzeko jo ahal dugun erakundearen siglak: Sociedad Española.....
- 2.- Gure herrialdean gehien egiten duten operazio estetikoetako bat.
- 3.- Estetikako operazio batean sor daitezkeen arazoetako bat.
- 4.- Sendagile zirujauz gain, estetikako klinika batek izan beharko lukeen beste espezialista zein da?
- 5.- Estetikako klinika batean irregulartasunaren bat aurkituz gero, zein Kontseilaritza joko zenuke?
- 6.- Gorputz-atal bat neurritz kanpo eta modu irrealean hautematean datzan gaixotasuna.





LETRA-ZOPA

Kirurgia estetikoarekin lotuta dauden 10 hitz bila itzazu.

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | R | I | L | I | P | O | S | U | K | Z | I | O | A | C | I | O | N | A | S |
| D | A | J | E | R | R | T | Y | H | G | D | S | X | Z | A | W | R | T | O | E |
| E | C | L | E | O | T | E | S | A | D | S | O | A | R | A | T | A | E | T | N |
| T | S | I | G | E | T | C | E | I | U | I | J | P | E | J | M | U | T | O | U |
| H | Z | F | R | A | B | C | A | E | O | L | U | I | B | O | U | Y | O | P | R |
| N | U | R | F | U | J | E | B | V | R | I | I | Y | O | L | O | O | N | L | I |
| J | R | U | E | C | J | D | E | U | A | K | O | A | T | D | K | N | A | A | O |
| A | I | I | R | E | A | A | D | N | B | O | M | O | O | U | T | I | R | S | N |
| K | N | L | U | D | B | A | U | G | C | N | O | G | X | L | A | M | P | T | C |
| L | O | O | I | O | U | B | I | O | D | A | P | B | A | M | E | O | E | I | E |
| A | P | P | A | U | O | C | O | F | E | D | U | B | N | N | R | N | L | A | R |
| Ñ | L | I | L | N | M | D | G | E | F | X | R | P | O | O | T | I | O | E | I |
| Ñ | A | N | I | U | E | O | U | D | G | S | T | F | M | P | A | K | H | N | O |
| R | S | A | N | N | S | S | J | L | I | F | T | I | N | G | A | E | P | E | P |
| Y | T | M | O | O | U | E | T | O | H | U | F | Ñ | A | Q | E | L | A | N | I |
| D | I | I | M | O | R | N | Ñ | E | I | N | C | A | N | U | A | R | R | T | L |
| G | A | L | P | T | U | I | J | K | S | D | E | N | E | N | F | E | E | P | O |
| G | L | O | C | O | N | H | G | F | E | I | R | U | T | R | R | S | L | L | E |
| S | I | B | E | R | I | A | N | O | C | D | A | E | Y | S | I | F | O | I | D |
| Q | K | I | R | O | F | A | N | O | A | B | A | L | O | T | O | R | I | N | R |





5. DENBORA-PASEN SOLUZIOAK

HITZAK LOTU ITZAZU

| | | |
|-----------------|---|--------------------------------|
| Otoplastia | → | Belarriak |
| Blefaroplastia | → | Betazalak |
| Perfiloplastia | → | Masailalbo-hezurak eta kokotsa |
| Errinoplastia | → | Sudurra |
| Mamoplastia | → | Bularra |
| Liposukzioa | → | Izterrak, gluteoak eta aldakak |
| Abdominoplastia | → | Sabelaldea |
| Erritidektomia | → | Aurpegia |


HITZ GURUTZATUAK

Ezker-eskuin:

1.- Kirurgia konpontzaile


Goitik behera:

- 1.- SECPRE
- 2.- Liposukzioa
- 3.- Odoljarioak
- 4.- Anestesista
- 5.- Osasuna
- 6.- Dismorfofobia



LETRA ZOPA

- Liposukzioa
- Liftinga
- Kirofano
- Rinoplastia
- Silikona
- Botoxa
- Otoplastia
- Zirujau
- Anestesia
- Inplantea



6. UMORE GRAFIKOA

Hauek dira aukeratu ditugun komiki-bandetako batzuk⁽¹⁾. Zuk ere beste batzuk bilatu beharko dituzu. Bakarrik edo taldean egin dezakezu.



⁽¹⁾Handelsman Maitena



ERANSKINA

Inkesta honi erantzun. Zure lagun eta senideei ere inkesta egin ahal diezu. Orain gai honen inguruan asko dakizula, aztertu emaitzak eta ondorioak atera itzazu.

INKESTA: KIRURGIA ESTETIKOAREN ARRISKUAK EZAGUTZEN AL DITUGU?

1. Kirurgia estetikoren bat egin al duzu?

Bai_

Ez_

Zergatik?

Baiezkoa ematekotan, mota adieraz ezazu.

2. Kirurgia estetikoko operazioak egin ahal izateko zentroek bete behar dituzten baldintzak ezagutzen al dituzu?

Bai_

Ez_

Baiezkoa ematekotan, adierazi zein.

3. Kirurgia estetikoko operazio bat gaizki egiteak berekin dituen arriskuak ezagutzen al dituzu?

Bai_

Ez_

Baiezkoa ematekotan, adierazi zein.

4. Ongi informatuta egotea garrantzitsutzat jotzen al duzu?

Bai_

Ez_

Zergatik?

5. Gaiari buruzko informazioa ez baduzu, nora joko zenuke informazio bila?

6. Eta kirurgia estetikoko operazioaren bati dagokionez, arazoren bat izatekotan, nora joko zenuke?

Lortzen dituzun emaitzen arabera, hausnarketa egin eta horri jarraituta jardun ezazu. Ez al duzu uste gaiari buruzko informazioko kanpainaren bat egitea ongi egongo litzatekeela? Lanean jarri berriro. asmatu metodo bat eta ikasi duzuna zabal ezazu (eztabaida-lekuetan edo zure web orrian esaterako).

